



Agindua, 2024ko otsailaren 7ko, Osasuneko sailburuaren, zeinaren bidez onartzen baitira Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta 2024ko ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Plana.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6,1. artikuluak honako hau xedatzen du:

«Lege honen 2. artikulan aipatutako entitateek aurretik planifikatu behar dituzte emango dituzten dirulaguntzak plan estrategiko baten bidez.

Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren.

Plan estrategikoak programatikoak izango dira, eta haien edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharrik sortzen. Lau urteko indarraldia izango dute, non eta, barne hartzen dituzten jarduketen izaera dela-eta, epe luzeagoa behar ez den; egoera hori behar bezala arrazoitu beharko da dokumentuan bertan.

Orden de 7 de febrero de 2024, de la Consejera de Salud se aprueban el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Salud para el periodo 2024-2028 y el Plan Anual de Subvenciones del ejercicio 2024.

El artículo 6.1 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones establece lo siguiente:

“La actividad subvencional que se desarrolle por las entidades mencionadas en el artículo 2 de la presente ley deberá ser objeto de planificación previa mediante un plan estratégico.

Dicho plan contendrá los objetivos, efectos que se pretenden, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles, sus fuentes de financiación, y las acciones e indicadores relacionados con los objetivos del plan que permitan su seguimiento y evaluación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

Los planes estratégicos tendrán carácter programático y su contenido no crea derechos ni obligaciones. Tendrán un periodo de vigencia de cuatro años, salvo que por la naturaleza de las actuaciones a las que atiendan sea necesario un plazo mayor, circunstancia que será debidamente motivada en el propio documento.



Sail bakoitzaren eta haiei atxikitako sektore publikoko entitateen dirulaguntzen planak sail bakoitzeko sailburuak onetsiko ditu; baina, gaiaren berezitasuna dela-eta, sailaz azpiko eremukoak diren dirulaguntza-planak edo sailei atxikitako entitateei bakarrik dagozkien dirulaguntza-planak presta daitezke. Planak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira. Horrek ez du kentzen beste atari batzuetan ere argitaratzea edo argitaratu behar izatea».

Los planes de subvenciones referidos a los respectivos departamentos y a las entidades del sector público a ellos adscritas serán aprobados por la persona titular de cada departamento, sin perjuicio de que por la especialidad de la materia se elaboren planes de subvenciones de ámbito inferior al departamento o referidos exclusivamente a sus entidades adscritas. Los planes se publicarán en la sede electrónica de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin perjuicio de su publicación en otros portales.”

Lege-betebehar hori betetzeko, Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (PES 2024-2028) eta 2024 ekitaldiko Dirulaguntzen Urteko Plana (PAS 2024) egin dira. Bietarako, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariaren 01/15 Zirkularra egokitut da, eta, hari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Sail guztiak, bai eta haren erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ere, diruz lagun daitezkeen programak sustatzen dituztenek, plan estrategiko bat onartu beharko dute. Plan horretan, hain zuzen ere, diruz lagundu daitekeen jarduera osoa jasoko da, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokoren programetako aurrekontu-memorietan bildutako helburuak, ekintzak eta adierazleak hartu beharko dira kontuan.

Plan horiek (estrategikoa eta urtekoa) Osasun Sailaren politika planifikatzeko tresna dira, eta haien helburua da dirulaguntzak emanet osasuna sustatzea.

En cumplimiento de dicha obligación legal se ha elaborado el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de salud para el periodo 2024-2028 (PES 2024-2028) y el Plan Anual de Subvenciones del ejercicio 2024 (PAS 2024). Para ambos, se ha adaptado la Circular núm. 01/15 del Director de la Oficina de Control Económico, del Departamento de Hacienda y Finanzas, establece que todos los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como sus organismos autónomos y Entes Públicos de Derecho privado impulsores de programas subvencionales, deberán aprobar un Plan Estratégico que incluya toda su actividad subvencional teniendo en cuenta para ello los objetivos, acciones e indicadores contenidos en las memorias presupuestarias de los diferentes programas de los Presupuestos Generales de La Comunidad Autónoma de Euskadi.

La elaboración de estos planes (estratégico y anual) se configura como un instrumento de planificación de la política del Departamento de Salud tiene por objeto el fomento de la salud mediante la concesión de

subvenciones.

Bi planak egiteko, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira, eta planaren indarraldian horretarako eskuragarri dauden baliabideekin erkatu dira. Horrela, bermatu egiten da eraginkortasuna eta efizientzia handituko direla, eta gure jarduketa-eremuan gardentasuna indartuko dela.

Para la elaboración de ambos planes se han examinado los intereses públicos cuya consecución se persigue, y se han contrastado con los recursos disponibles para ello en el periodo de vigencia del plan. De esta forma se garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en nuestro ámbito de actuación.

Onetsitako planek programa-izaera dute. Beraz, haien edukiak ez du eskubiderik sortzen, ezta betebeharrik ere, eta eraginkorrik izango badira, dirulaguntzen lerro batzuk eta besteak abian jarri beharko dira, besteak beste ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Los planes aprobados tienen un carácter programático, por lo que su contenido no crea derechos ni obligaciones, y su efectividad queda condicionada a la puesta en práctica de las diferentes líneas de subvención, atendiendo entre otros aspectos a las disponibilidades presupuestarias de cada ejercicio.

Saileko zuzendaritza guztiak eta Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioa hartzen dituzte barne, fundazio hori sailaren mende baitago.

Comprenden el conjunto de las direcciones del departamento y a la Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias, dependiente del mismo.

Hala, indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan ahalmenak baliatuta, honako hau

Así, en virtud de las competencias que me atribuye la normativa vigente,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onestea (PES 2024-2028). Plan estrategiko hori agindu honen eranskinean jasota dago.

RESUELVO:

Primero.- Aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de salud para el periodo 2024-2028 (PES 2024-2028) que se incorpora como anexo a la presente orden.

Bigarrena.- Osasun Sailaren 2024 ekitaldirako Dirulaguntzen Urteko Plana onestea (PAS 2024). Plan Estrategiko horren edukia, agindu honekin batera doazen eranskin hauetan zehazten da:

Segundo.- Aprobar el Plan Anual de Subvenciones del Departamento de Salud del ejercicio 2024 (PAS 2024), cuyo contenido se detalla en los siguientes anexos contenidos en el documento que acompaña a la

presente orden:

- | | |
|---|---|
| I. eranskina.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-erroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak. | Anexo I.-Ejes Estratégicos y Líneas subvencionales: Objetivos, acciones e indicadores. |
| II. eranskina.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-erroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publikoa orotara hartuta. | Anexo II.-Ejes Estratégicos y Líneas subvencionales: Compromisos presupuestarios y porcentaje de financiación respecto del global de financiación pública |
| III. eranskina.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-erroak: Sektore hartzaila(k) eta dirulaguntza emateko prozedura. | Anexo III.-Ejes Estratégicos y Líneas subvencionales: Sector o sectores a los que se dirigen y procedimiento de concesión. |
| Hirugarrena.- Agindu hau Osasun Sailaren egoitza elektronikoan argitara dadila agintzea, prozeduran interesa izan dezaketen pertsona guztiak jakin dezaten. | Tercero.- Ordenar la publicación de esta orden en la sede electrónica del Departamento de Salud, para su conocimiento por todas las personas que pudieran ostentar interés en el procedimiento. |

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 7a.

**Osasuneko sailburua,
Miren Gotzone SAGARDUI GOIKOETXEA**